

# ENE JESUS

pian. Aluminiozko pota lurrean. Bere kirtaren misterioa gordea. Karilonaren nauo errenz beriko ordu ezezaguna atzetan. Ezarri erreflexua sabaiko ispean. Ezarri pedaletan ozitopon. Ezarri baletan esan. Ezarri raiacal-bon. Ezarri raiain-za. Ezarri alo-le. Ezarri o-za. Ezarri ca-ab. Ezarri du-gua. Ezarri rbe-za. Ezarri ruten sinesten.

Ez z...  
aren  
du.  
ga-  
tan  
car-  
eta  
ber-  
atiko-  
maitea  
nuen a...  
n. "Ikusi  
nabi abal...  
nabi abal  
nabru" ziur asko...  
gehituaz zibozkion  
izter baten azal zuri leucenan.

ENE JESUS

n a r r a t i b a • 164

ere in

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

1. argitalpena: 1976an
2. argitalpena: 1994an
3. argitalpena: 2026ko martxoan

Azaleko irudia:

Joxean Muñoz

Maketazioa:

Asier Beltza

© Ramon Saizarbitora

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-067-4

L.G.: D 199-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

[gertugrafika@gmail.com](mailto:gertugrafika@gmail.com)

[www.gertu.net](http://www.gertu.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Ramon Saizarbitoria

# ENE JESUS

edo

Jesus, Jesus, Jesus Maria eta Jose

Hitzaurrea: Joxean Muñoz



erein



## IRAKURLEARI

Joxean Muñoz Otaegi

Bakarrik. Itxian. Geldirik. Gela akoltxatu batean itxi duten gizon batek bere buruari historiak kontatzeko egiten duen ahalegina kontatzen du nobela honek. Ahalegin, behin eta berriz abiatua, etengabe zapuztua. Ez dakigu gizon hori, narratzailea, «ni» esaten duena, nor den. Gizon horrek ez du izenik, ez hazpegirik. Ez zaigu esango zergatik itxi duten gela horretan. Ez zaigu argituko gizon hori dagoen lekua kartzela den edo zoro-etxea, edo biak batera. Ohean datza, gela huts batean, non ezer ez dagoen ez bada horma akoltxatuak, ispilu bat sabaian, argia, barrotez gurutzatutako leihotik datorkion argi zuria, xehe eta zehatz deskribatuko duena, eta poto bat, egunero ekartzen diotena, berak ikusi eta aztertu bai, arretaz deskribatu bai, baina erabiltzen ez duena. Ez da potoan dakarkiotenaz baliatzeko altxatzen, ez da saiatu ere egiten. Ezertan saiatzen bada, ez altxatzen, ez mugitzen, tematzen da; izan ere, gero eta gutxiago mugitzeko ahalegina egiten du, nobelak aurrera egin ahala immobilizazio erabatekoa erdiesteko. Akzio bizia eta argumentuaren tentsioa eskatzen dituen irakurleak jai du hemen.

Gizon hori esperoan dago, baina ez dago ezeren zain. Ez baitu ezeren esperantzarik. «Zain egotea ez da itxaroten egotea bezala. [...] Zain ez da desesperantzarekin konjugatzen eta behar bezala itxaroteko, berriz, derrigorrezkoa da desesperantza-ren krueldadea sufritzen ikastea». Esperantzarik gabeko espe-roa beste etorkizunik ez duen gizon horrek historiak kontatzea erabakitzen du, asperdurari aurre egitearren. Ez zaio zaila iru-ditzen: «Historiak kontatzeak sistematizazio apur bat besterik ez du eskatzen ziur asko. Sistematizazio apur bat, historia bat bukatu aurretik beste bati ez ekiteko edo, ezer seriorik kontatu gabe, baten haria bestearenarekin ez nahasteko».

Ez du bere bizitza kontatzeko gogorik, «nahi banu konta ne-zake neure historia, baina zazpinaka kontatzea bezain asperga-rria litzateke hori, zeren goitik behera ezagutzen baitut historia hori, neure historia denez», baina besterik ez du kontatzen no-bela guztian barrena. Bizi izandako zenbait pasarte, zenbait irudi multzo, zenbait eszena behin eta berriz azaltzen zaizkio narra-tzaileari, esaldi puskek, irudi puskek, eszena puskek. Puska ho-rietatik saiatuko da historiak eraikitzen. «Gehienetan historiak sortu egiten zaizkit [...] edo sortzen uzten diet neure partetik ezer gutxi jarri gabe. Esan nahi dut [...] ez ditudala inbentatzen». Bu-rura etortzen zaizkion historia horiek bi multzotan klasifikatzen ditu narratzaileak, zehaztasunaren eta «zientifikotasunaren» xerka obsesiboan: imajinatu nahi dituenak eta imajinatu nahi ez di-tuenak. «Imajinatu nahi ez nituzkeen historiek ez naute aban-donatzen. Imajinatu nahi ez nituzkeen historiak direla oso pre-sente izateko beharbada. Beharbada abandonatzen ez nautelako dakit abandonatu nahi nituzkeela».

Imajinatu nahi dituen historiak –Marga, Marga txalupan, Marga zineman, Marga tabernan, Marga parkean, Abel eta

Marga, bere gaztaroko egonaldiak tren geltokian Mutuarekin Samuelen historiak entzuten—, behin eta berriz azalduko zaizkion historia zatiok, imajinatu nahi ez dituen historia eta irudiekin kateatuko zaizkio: aita hil berriaren aurpegia inguratzen duen zapi zuria; amaren mukizapi zuri txikia, malkoak xukatzeko darabilena; ama, erregu eta kexa etengabea egiten duena, nobela guztia zeharkatuko duen lelo ernegagarrian, «Ene Jesus» edo «Jesus, Jesus, Maria ta Jose». Ama, beltzez jantzia. Ama terriblea. Amaren kexa itogarria, amaren maitasun hilgarria.

Imajinatu nahi ez dituen eta kontatu ezin dituen historiak presenteegi egiten zaizkionean, ihes egiten du narratzaileak. Nobelaren protagonista ama marmarrean hasi orduko Red-Ox tabernara eskapatzen den moduan, nobelaren narratzailea zazpinaka kontatzen hasten da kontatu nahi ez lituzkeen historiak kontatzeari iskin egiteko. Helduleku zaizkio zenbakiak. Objektiboak dira. Hotzak. Sentimenduen zamarik ez dutenak. Esan behar dutena zehatz esaten dutenak, ekibokorik eragin gabe. Kontatzeko modu bat, kontatu nahi ez den hura saihesteko egokia, kontatu nahi ez den hura kontatzera behartzen ez duena. Lelo bat. Mantra lasaigarri bat. Hasieratik, nobelaren lehen parrafotik, kontaketa bi modu ditu narratzaileak aukeran, historiak kontatzea edo zazpinaka kontatzea. «Zazpinaka kontatzea kredoa errezatzea bezala litzateke, baina burua gehiago ejerzitatuz agian. Itzaroteko bi prozedura». Hasieran, baliabide bat da, ez aspertzeko modu bat, nobela abian jartzen den arte, zazpinakako kontaerari utzita historiak kontatzeko erabakia hartzen duenean. Baina zazpinakako taula errezitatzea berehala lotzen zaio amaren leloari, beste errezo modu bati hain zuzen, eta aita hil berriaren matrailak ixten dituen zapi zuriari. «Derrigorrezko momentu horietan izan ezik, ez dut gehiago

zazpinaka kontatuko. Hori ez da denborari itxaroteko manera noble bat. Horretarako berdin litzateke errezatzea. Berdin eta ohiturarekin adosago».

Historiak kontatzeari ekiten dio, beraz, eta zazpinaka kontatzeari behin bakarrik helduko dio, nobelaren erdialdean edo: «desesperazioaren amildegia. Tentagarria da: zazpi, hamalau, hogeita bat, hogeita zazpi». Numeroak ez dira berriro azalduko zortzigarren kapituluaren amaiera arte, eta azken kapituluan, bederatzigarrenean, erabat nagusituko zaizkie numeroak hitzei, zenbakiak kontatzea historiak kontatzeari, noiz eta amaren figura eszena guztiaz jabetzen denean. Hitzaren kodigoa baztertu, «abandonatu» esango luke narratzaileak, eta zenbakien kodigo zirrikiturik gabeari lotzen zaio, etsita. Ezinaren ezinean, bere fantasmak nagusitzen zaizkionean, hizkuntzaren kodea ez zaio jada baliagarria izango, eta zenbakien leloari lotuko zaio erabat, nobelaren burutzapenean beste kode batera saltatuz, hizkuntzaren ordenatik aritmetikarenera, zazpinaka kontatzea angustia izugarriari emandako erantzun posible bakarra bilakaturik.

Irakurleak ez du hemen hizkuntza «gardena», oharkabean pasa daitekeena, argumentuaren bizitasunari trabarik egiten ez diona aurkituko. Hemen, nobela honetan, kontatzea bera arazo da, kuestionatu egiten da, narratzailea hizketan hasten da jakitun hizkuntza ez dela inoiz gardena, kontakizuna ez dela inoiz inozentea, gertaerak historia batean jostea berez dela tranpatia, jabeturik «abandonatu nahi genituzkeen historiak» direla kontatu beharrekoak eta horiexek direla, hain zuzen, kontatu ezinak gertatzen zaizkigunak. Edo nekez konta daitezkeenak, ez bada zeharka.

Etenka. Bederatzi kapitulu eta lauhunetik gora testu bloketan dago antolatua nobela. Horietako batzuk esaldi soilak

dira. Ziztadak dirudite. Erritmo hori markatzen du nobelak, zatiak, puskak, irakurleari esanez bezala, «zoaz arretaz», astia hartuz jabetzeko nola agertzen diren behin eta berriz pasarte berberak, nola eraldatzen diren, nola deformatzen, nola irudiok mugitu egiten diren, «esanahi diferente asko dituzten». Irudi mugikorrek dira batzuetan, film zatiak bailiran, irudi finkoak, besteetan, «Novedadeseko atarian azaltzen ziren karteletakoak bezala», [...] «historia desberdinetakoak beharbada, agian gertatu ez zirenak, amets egindakoak edo noizbait asmatutakoak». Izan ere, nobelaren idazleak, Ramon Saizarbitoriak, Patri Urkizuren *Sekulorum Sekulotan* nobelarako hitzaurrean dioen bezala, bere lanari buruzkoa izan zitekeen pasarte batean, «“gertakizun tipi kotidianoa” kaptatzeko, heltzeko, ez da diskurtso filosofikoaren beharrik, egia esateko hobe da zine kamera bat. Narratibak –imitatu gabe– hizkuntza zinematografikotik hain urrun ez dabilen estilo bat erabiliko du. Nobela bizitzaren gauzen detaile objektibo eta tipien flash kateatu bat izanen da». Flashez, irudi mugikorrez eta irudi finkoez osatzen dira nobelaren hari narratiboak, behin eta berriz txirikordatuko direnak, film baten harraldi desberdinak balira bezala, mobiola batean josi eta film koherente bat osatu beharko luketenak eta osotasun koherenterik inoiz erdietsiko ez dutenak. Alferrik espero izango du irakurleak nobelan gertatutako guztiari, hari solte guztiei, koherentzia emango dien bukaera egokia, burutzapen argigarria.

Errepikapenak ez du, baina, kontatutakoaren benetakotasuna areagotzen. Aitzitik, narrazioak uzten du halako irrealtasun sentsazio bat, ezegonkortasun aire bat, zer den egia edota egia zer den argitzen ez duena. Hala, nobelan barrena jiraka ari diren bi eszena bortitzenak, erailketa eta biolazioa, gertakari zoroak

ala zoro baten asmakeriak ote diren ebatzi ezinik geratuko da irakurlea. Ziurtasunaren frakasoa egitura osoa astintzen duen arrakalarekin biribiltzen da, irakurle-bezeroarekiko begirunerik gabe, kontakizunean barrena eraikitzen joan den arkitektura badaezpadakoa eraitsi egiten baitu narratzaileak, nobelaren azken paragrafoetan, etsipenaren muga. «Eta estazioan ez zegoen muturik eta ez zegoen Samuelik haurren negarra imitatzeko. Eta ez zegoen Samuelik haurren negarra imitatzeko. Eta ez zegoen estaziorik. Eta ezin ezagutu ahal izan nuen komun turkoetako zokoa. Eta dena hondarra zen. Hondar siku eta fina. Hautsa». Frakaso baten historia kontatzen digu nobela honek.

Nobela honetan, narratzaileak ez du lortuko historiak kontatzearen arauak, nobelaren hasieran bere buruari gogorazi dizkionak, betetzea, bere narrazioa eten egiten baita eta puskatu, sistematikoki hori bai: sistematikoki ekiten dio historia berri bati aurrekoa bukatu gabe, sistematikoki nahasten ditu baten eta bestearen hariak. Narratzaile horrek ez du bere historia biribiltzea eta osatzea lortuko. «Alferrik izan ohi da historiari hasiera egoki bat asmatzen saiatzea, ezin interpretatu dudana mekanismo batek okertu egiten baititu». Bizitzan ezer lortu ez duen gizona da narratzailea. Berak baino hobeto kontatzen ditu historiak beste batek, Samuelek. Beste bati, Abeli, hobeto dihoakio etxez etxeko salmenta. Hobeto dihoakio neskekin. Neskarekin. Margak Abeli egiten dio kasu. Bera soberan dago, ez du lortuko Margaren arretarik. Ez du lortuko aita frakasatu baten seme frakasatua izatea ekiditerik, aitaren paralisia ez errepikatzerik. Ez du lortuko ama izugarri horrengandik aldentzea, ez du lortuko, modurik latzena eta izugarriena erabiliko badu ere. Irakurleak ez du hemen aurkituko sortzen

zaizkion traba guztiak gaindituz doan protagonista heroiko la-saigarrik.

Gela akoltzatuko argitasun zurian, «bi dimentsiotako zuritasunean galdua», «formak irensten dituen zuritasun gordinean», espaziotik eta denboratik isolatuta, mundu ia abstraktu batean dago narratzailea. Inon ez eta inoiz ez aseptiko (akoltxatu) batetik dihardu historiak kontatzen. Ordea, bere narrazioa behin eta berriz ainguratuko da mundu errealean. Zurezko tren geltokia. Tabernako ataria. Taberna barruko giroa. «Novedades» zine aretoa. Avenida. Bulebarra. Hondartza inguruko pasealekua, portuan dagoen bulegoa. Errealitate jakin batean dago nobela hau kokatua, irakurle euskaldunak aise identifikatzen duen hurbileko munduan, irakurlearen espazio berean.

Nola espazio jakin batean, hala dago kokatua denbora jakin batean. Tren geltokiak egurrezkoak zireneko garaian, bizikletan binaka ibili zitekeenean, baserrietako emakumeak bere oilo eta barazkiekin azokara etortzen zirenean, tabernak izen arrotz modernoekin bataiatzen hasi zirenean, hildakoei aurpegian zapi zuria lotzen zitzaionean, etxez etxeko salmenta egiten zenean, etxe gehienek igogailurik ez zutenean, ama terribreak beltzez janzten zirenean eta beraien marmar gupidagarri eta gupidagabeek letania baten forma hartzen zutenean. «Jesus, Jesus Maria ta Jose». Nobela argitaratu zen garaiko irakurleak denbora hori ezaguna zuen, berea zuen, edo bere iragan oso hurbilekoa. Oraingo irakurleak, berriz, iragan urrunagoan, XX. mendean, kokatutako historia bat aurkituko du. Oraingo ama terribreak kolorez janzten dira, ez dute salmodia erlijiosorik erabiltzen, beste forma batzuk hartzen dituzte bai maitasun itogarriek eta bai emakumeenganako beldurrak eta ezinak, lilurak eta erasoak. Baina berdin dira egungoak, liburuaren

muinean dauden frakasoak, ezina, kexuaren biolentzia eta frakasatuaren boterea.

Idazkerari dagokionez ere, garai jakin batean kokatuta dago nobela hau. Nobelagintza auzitan jartzen duen, nobelagintzaren konbentzioak banan-banan eraisten dituen literatura baten garaikoa da. Literaturaren kontra egindako literatura, zeinak aldarrikatzen baitu «historiak sistematizazio apur batez» kontatzea baino harago doala literatura, burutzapenera heltzea kimera bat dela azaltzen duen literatura modu bat, defendatzen duena literaturaren eginkizuna ez dela munduari koherentzia apurrak eskaintzea, ez dela fikzioez munduak zentzua daukako fikzioa bazkatzea, bizitzaren frakasoaren lekukotasuna ematea baizik. «Gizona indeszifrablea, ulertezina kontsideratzen duenez ez du interes handiagoko gauzarik aurkitzen deszifratzeko edo entenditzeko egiten diren ahalegin guztien frakasoak erakustea baino», idazten du Saizarbitoriak Patri Urkizuren nobela aurkezteko. Bere nobelaz ere ari da.

1976koa da nobela hau. *Ene Jesuseko* gela zuri akoltxatuan entzun egiten dira hamarkada horretan kulturaren ohiko moldeak eraisteko eta arrakalatzeko sorkuntzaren alor guztietan egiten ari diren saioen oihartzunak: margolan monokromoak, kodeen nahasketa, collagea, zine-muntaketa etena, egitura aleatorioak, irudien hustuketa, irudiak errepikapenaren eta metaketaren bidez baliogabetzea, kode numerikoen erakarmena, zientifikotasunaren eta hoztasun objektiboaren xerka.

1976koa da euskal nobela hau. *Ene Jesuseko* gela zuri akoltxatua urrun dago bere garaiko eztabaida, buruhauste eta zalapartatik. Tentsio politiko handiko garaia zen, diktadorea hil berritan, norberaren eta norbere adierazpenen posizio politikoek erabateko garrantzia zuten garai bat. Ordea, Saizarbitoriak gela

itxi batean eraikitzen du bere nobela, gela isolatu batean, kalleko oihartzunik helden ez zaion leku batean. Hor ez dago herririk. Gizon bat dago, bakarrik, bere fantasmekin bakarrik. Kulpa handi bat dago eta kontatzeko premia bat, burutu ezina, berez. Ez da adierazpen ozenetarako lekua, ez da egia sendoetarako egokiera. Eldarniotik oso gertu dagoen diskurtso bat da. Amari buruzkoa. Herriko plazetan ama-aberriari egiten zitzaizkion kantuak ez dira gela horretan aditzen.

*Ene Jesus* Ramon Saizarbitoriaren hirugarren nobela da. Argitaratuak zituen ordurako *Egunero hasten delako* eta *Ehun metro*. *Ene Jesus* argitaratu ondoren, hemeretzi urte pasatu zituen Saizarbitoriak nobelarik argitaratu gabe. Bere nobelagintza mutur posible bateraino eramana zuen testu honekin. Nobela isiltasunean bukatzen da. Mututasunean. Bukatu baino areago, desagertuz doa, desegin egiten da, liburuaren orrien zuritasunak testua jaten duen arte. Nekez egin zitekeen aurrera.

Bere estrategia literarioak berrantolaturik itzuli zen Saizarbitoria nobelagintzara, hamar liburu argitaratu ditu geroztik. *Ene Jesus* ez da, ordea, abandonatutako bide bat, inoizko esperimentu isolatua. Bertan azaltzen diren kezkek eta obsesioak behin eta berriz agertuko dira Saizarbitoriaren nobelagintza osoan, ezkutuko hari baten moduan. Literatura egin ezinaren kontzientzia mingarria, xehetasunari ematen zaion garrantzia, gorputzen jarreraren eta mugimenduen deskribapen ia kirurgikoa, eta izenak baita ere: Flora, Samuel.

«Samuelek nahi bazuen konta zezakeela esan zuen. “Oso ondo konta dezaket nahi badut ze ni han egon nintzen”, esan zuen Samuelek». Samuel Becketten itzala da, nobela honetan eta bere obra literarioan barrena agertzen den Samuel, belarrira «Saiatu beti. Huts egin beti. Saiatu berriro. Berriro huts egin.

Hobeto huts egin» esaten duena. Ondradua izatea eskatzen dio Saizarbitoriak bere literaturari. Horregatik aitortzen du figura nagusi, handiago, boteretsuago hori, idazleari hauspoa eta, aldi berean, itolarria ematen diona. Samuel tarteka azalduko da nobelan zehar, kontalari trebe beti, jendea inguratzea lortzen duena, narradoreak ez bezala jendearentzako hitz egiten duena. Aldaketa nabarmena gertatzen da *Martutene* nobelan (2012), non eta Max Frisch bihurtzen den «narratzaileak baino hobeto kontatuko zukeen» hura. Martutene nobelara ekartzen duen Max Frischen aipuari ez zaio *Ene Jesus* arrotza: «Trajeak balira bezala probatzen ditut historiak».

Ramon Saizarbitoria idazlea jakitun da ez dela paper zurian idazten, irakurritako, ikusitako, entzundako gutzia bizi-bizi dagoela paperean, eta idazlearen eginkizuna, hain zuzen, anabasa horretan bide bat urratzea dela, kenduz, baztertuz, eta eraitsiz. Bere bidea euskaraz egiten ahalegintzen den idazleari barruan dituen ahotsak, paperean biltzen zaizkion hitz, soinu, irudiak erdaraz mintzo zaizkio ia osoan. Erreferente, aukera, eredu, erraztasun gutxi dauzka bere hizkuntzan, eta daukan hizkuntzak ez dio literalki eta literarioki balio. Halabeharrez ukatu behar du hizkuntza hori, esku hutsik geratzeko arriskuan, eta are gehiago bere nobelako narratzaileak munduari zientifiko batek bezala begiratzeri behartzen badu bere burua, «Zientifikoki. Zirujau batek gaixoaren gibela begiratzen duen bezala, adibidez». Eta are gehiago 1976an, eta orain 50 urteko hizkuntzaren egoeran, euskararen, euskara ez sentimental baten, funtzionatuko zuen euskara funtzional baten premian, euskal literaturaren eta kulturaren orduko egoera azpigaratuan. Frakaso mingarrien markak dituen hizkuntzaz egiten du Saizarbitoriak frakasoaren literatura. Ez du, beraz, Beckett irlandarrak bezala,

hizkuntzaz aldatu beharrik, bere hizkuntza trabatzeko. Ingelesez eder mintzo zen idazleak frantsesez idazteko erabakia hartzen du, neketsuagoa zaion hizkuntza batean alegia, hitzen jarioari trabak jartzeko, erraztasunari uko egiteko, hitzak tentuz aukeratu behar izateko, zailtasunetik sortutako hizkuntza lehor bat eraikitzeko. Idazle euskaldunak, berriz, berezkoa du gerora Deleuzek «*langue mineure*» esango zion hori. Bere hizkuntza, berea delako hautatu duen hizkuntza hori, hizkuntza eskastu hori, berez da *mineure*.

Literaturaren inguruko literatura balitz soilik, literatura auzitan jartzeko saio bat, dokumentu interesgarria irudituko litzaziguke egun, beharrezkoa izan zaigun aro kultural baten kezken lekukoa. *Ene Jesus* ez dela inondik ere konstrukto metaliterario bat argitu beharra sentitu zuen Ramon Saizarbitoriak liburuaren lehen argitalpenari egin zion testu argigarrian, ez zuela esaten direnak beste era batetara esaterik: «Batuetan angustiaren muga osatutako hitzok errepasatuz, zer ote dudan galdetzen diot neure buruari, edo zer ez ote dudan, hala ere literatura egin nahian –fantasma pertsonalak eskutik hartuz– jarraitzeko».

Horregatik dago liburua bizirik, «fantasmak eskutik helduta» idatzita dagoelako, horregatik da gomendagarria, txit gomendagarria egun ere, idazleak bilatu zuelako euskara eskastu bat gizakiaren eskastasun berezkoan sakontzeko, aurkitu zuelako ezintasunetik nobela gogoangarri bat eraikitzeko modua. Liburu ondradua da. Gordina. Ederra. Beharrezkoa. Eskertuko dio irakurleak, gela akoltxatu batetik irten gabe irauten ausartzen den irakurleak.



Ramon Saizarbitoria

ENE JESUS

edo

Jesus, Jesus, Jesus Maria eta Jose



Samuelek nahi bazuen konta zezakeela esan zuen. «Oso ondo konta dezaket nahi badut ze ni han egon nintzen», esan zuen Samuelek. Eta nik ere esan dezaket hori bera, nahi badut. Historiak kontatzeak sistematizazio apur bat besterik ez du eskatzen ziur asko. Sistematizazio apur bat, historia bat bukatu aurretik beste bati ez ekiteko edo, ezer seriorik kontatu gabe, baten haria bestearenarekin ez nahasteko. Ezagutzen naiz. Nahi banu konta nezake neure historia, baina zazpinaka kontatzea bezain aspergarria litzateke hori, zeren goitik behera ezagutzen baitut historia hori, neure historia denez. Ez da egia. Eta imajinatzen edo asmatzen ditudan historia asko ere ez dira egia izanen kontatzerakoan kuidado apur bat gehiago jartzan ez badut. Lotsaren aztarrenik gabe. Esate baterako, Margarekin txalupan nagoela bularrak erakusten dizkidanekoa eta hori dena. Egun batean erronboekin imajinatu nuen igeritakoak ez zuen erronborik hurrengoan. Horrela ezin daiteke. Lotsaren aztarrenik gabe engainatzen dut neure burua. Hitzak.

Lotsa ziur asko prejuizio hutsa besterik ez litzateke izanen kasu honetan zeren neure burua engainatzen badut neronek permititzen dudalako izanen baita. Ez naiz inozoa. Gainera hemen denbora pasatzea da asuntoa. Beste era batera esanda, denborari itxarotea, eta denborari edo orduari trenari bezalaxe itxaroten zaio. «Hay chicles, caramelos, pastillas de café y leche».

«Chicle americano». Mutuaren bizikletaren barra hezurerraino sartzen zitzaidan ipurdian. Nik ez nuen hitzik esaten eta mutuak ere ez. Berak estazioan uzten ninduen eta mutua bizikletan ateratzen zitzaidan bila. Gero mutuak motorra erosi zuen, baina ordurako handitu egin nintzen edo bidea oinez ikasi nuen, edo ez zitzaidan inongo muturik ateratzen behintzat bila. Aber nora joan naizen orain edo ea nondik natorren. Detaileen baso hertsian orain ere. Gainera «caramelos, chocolates, pastillas de café y leche». «Chicle americano», esan ohi zuen Doña Klaudianeko gorriak tren parean. Edo «toffes, chicles, caramelos». Auskalo.

Dena den txalupako historia ez zitzaidan gaizki geratu eta ez da, askok pentsatuko luketen bezala, historia ordinario bat. «Ikusi nahi al dizkidazu esan zuen Margak». Ez dago gaizki.

Mizpira bat bezala aspertzen edo usteltzen naiz. Aitortu egin behar.

Kanpai hotsa entzutean begiak hertsirik iraunen dut, hots disarmonikoa noiz isilduko zain geratuko naiz eta begiak hersteagatik ere betazaletatik filtratuko zaidan argitasun zuri

intentsua ikusi ahal izanen dut. Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi. Hamalau.

Baina bitartean ez du begiak zabaltzerik ere merezi. Poto bat eta jasotzerakoan uzten duen lekua betetzen duen beste potoa. Ziur asko gela deitzen dioten kaxoi honen horma akoltxatuak. Inora ere eramaten ez duen leihoa hersten duten burdinazko barrrote gurutzatuak. Sabaiko ispilua, eta ni ohe gainean erreflejatua. Inbentarioen inbentarioa.

Hogeita zazpi ez. Hogeita zortzi. Zazpi, hamalau, hogeita bat, hogeita zortzi. Ez kontzentratzekotan alferrik ari naiz kontatzen. Horretarako hobe da abandonatzea. «Cara o cruz», esan zuen Margak eta Abelek duro bat eman zion. «Zurekin tokatu zait», esan zuen Margak. Amak ez zuen Marga maite. Esan ez balit ere jakin egingen nukeen, baina esan egin zidan.

Imajinatu nahi ez ditugun historiak. Uste baino kuriosoagoa da: imajinatu nahi ez nituzkeen historiek ez naute abandonatzen. Imajinatu nahi ez nituzkeen historiak direla oso presente izateko beharbada. Beharbada abandonatzen ez nautelako dakit abandonatu nahi nituzkeela. Imajinatu nahi ez nituzkeen historiak. Auskalo.

Pentsatzen jardun dut eta neure eginkizunetako bat egin beharko nituzkeen eginkizunez pentsatzea litzatekeela erabaki dut. Probetxugarri gertatu zait pentsatzea. Esan ohi den bezala, ekintza-programa bat, bi zatitan banatua. Bat: gogoratu nahi ez nituzkeen historien inbentarioa egitea. Guztiak golkoan ditudala konbentzitzean, abandonatu ahal izanen ditut betirako.

Bi: gogoragarriak diren historien stock bat osatzea. Ideia hau desarrolatu egin behar dut oraindik.

Gauza asko dira bigunak, gogortu ez den ogia esate baterako biguna da: baina bada gauza bigunagorik oraindik eta bada biguna nardagarri egiten den muga bat. Bigun hura nardagarria zen, biguna eta nardagarria sentitu nuen azpihezuraren kontra. Biguna, hezea, eta epela. Baina batez ere biguna. Hala ere neure kontra estutu behar izan nuen ihes egin ez zezan. Oso ondo konprenitzen zuen guztia, itxuraz, ze oraindik minik ezin egin baniezaiokeen ere, oihu egiten zuen. Nik ez nuen deus entzuten edo agian entzuten nuen, baina ahoa zabaltzen zuen eta badakit «berak bezala bukatu behar duk» edo antzeko zerbait esaten zuela. Ez zegoen isilarazteko beste formarik eta neureganatzeko, sabel hori bigun epel eta hezea azpihezurraren kontra estutu behar izan nuen haren horitasun, biguntasun, epeltasun eta hezetasun nardagarriak sentituz.

Kanpai hotsa entzun dudanean ez ditut ireki eta hots disarmonikoa noiz isilduko zain geratu naiz, begiak indarrez hersteagatik ere, betazaletatik filtratzen zaidan argitasun zuri intentsua alderatu nahiz. Sabel zuri baten amildegi misterio-tsuaeren ilunean. Esperoan. Karilloiak laugarren nota faltsua erortzen utzi du airean, pauso herrena markatu duen hots metaliko bat. Hots metalikoa.

Sudurzapi zuri tipi bat atera ohi zuen jertse beltzaren manga barrenetik. Eta ordutan egon zitekeen zapi zurian bildutako behatz indizearekin malko perpetuo bat begi ertzetan lehortzen. Salako leiho atzean. Eskuak mantal gainean

abandonaturik eta gorputza aurrerantz aterata granatez tapi-  
zatutako aulkia, ondo gastatua eta herrena.

Pauso herren bat bezala. Behin eta berriz nota faltsu bate-  
kin insistitzen duen hots metalikoa, kanpai musika arritmikoa,  
espiral sonoro batean errepikatzen delako seinale edo konsta-  
tazio bakar bezala agertzen da: hamaika hots metaliko galduak,  
karilloi musika hamaika aldiz errepetitzen dela adierazten dute.

Begiak hertsirik mantentzen ditut oraindik eta ziur asko as-  
paldidanik argi zuri betea ez ikustearren betazalak bi behatz  
puntekin sakatzen ditudalako puntu argitsuz osatutako sistema  
luminoso bat ikusten dut orain. Aspaldidanik ordua seinala-  
tuko lukeen karilloiaren ondorengo kanpai hotsaren esperoan.

Esperoan, aspaldidanik esperoan. Baina halako batean,  
hil da, joan da, isildu da, galdu da karilloiaren azken notak utzi  
duen bibrazioa erresonantzia luzeagoa duen hots faltsuaren  
oihartzun metalikoarekin batera. Agian gela betetzen duen  
argi zuri pastatsuak hots oro irentsi du, eta horregatik ezin de-  
zaket deus ere gehiago entzun.

Barre egiten dut eta ez dut neure barrearen oihartzunik ja-  
sotzen belarrietan. Negar egiten dut eta ez dut neure negarra-  
ren oihartzunik jasotzen belarrietan. Ez da egia, jasotzen dut  
baina jasotzen dudana ez da neure barrearen edo negarraren  
hotsa. Ezin dut egin egiazko barrerik edo negarrik. Bestalde zo-  
roek egiten dute bakarrik barre edo negar bakardadean. Ba-  
karrik zoroek egiten dute bakardadean barre edo negar. Ba-  
kardadean negar egiten dute bakarrik zoroek, eta barre egiten

dutenek ez dute beren barrearen oihartzun negargarria entzuten. Barre edo negar egiten duten zoroek.

Ez dute nire barrerik entzunen. Eta ahal badut negarrik ere ez. Ezta malko bat ere. Berak berriz beti izan ohi zuen malko bat begi ertzetik zintzilik, eta gehienetan jertse beltzaren manga barnean zeraman sudurzapi tipiarekin begiak lehortzen jarduten zuela «Jesus, Jesus» esan ohi zuen, «Jesus, Jesus».

Bai. «Ze jesus eta ze oremus», erantzuten zion aitak.

Zapi zuri harekin aurpegi inguruan hagin bat atera izan baliote bezala.

Zapi zuri bat aurpegi inguruan ahoa hertsirik mantentzeko. Zazpi, hamalau, hogeita bat, hogeita zortzi, hogeita hamabost.

Zazpiehun eta hogeita hamabost, zazpiehun eta berrogeita bi, zazpiehun eta berrogeita bederatzi. «Jesus Maria ta Jose», esan ohi zuen agian.

Mizpira sail bat bezala aspertzen naiz. Irekitzeko esan behar diet begiei.

Hor dago, edo badator, edo badoa, denbora kateatuz, leihatila tartetik sartuz edo ateraz, gurutzea osatzen duten barrrote artetik lau puskatan zatitua, nonbaiteko eguzkiak isuria. Beharbada ez nuen horren zuria imajinatzen. Datorrela intuitzen dut horrelakorik ezin esan badezaket ere, ez baitu ez espazioaren ez denboraren sentidurik, denbora berean han eta hemen

baitago, eta bere parte baten ondoren eta hurrengoaren aurrez, dagoeneko lehendabizikoa ez den eta oraindik hurrengo ezin izan daitekeen beste parte bat, parte zuri eta argitsu bat ikus baitaiteke. Handia da argiaren fenomenoak. Epikoa. Batez ere ondo deskribatuz gero. Posibilitate asko dauzkat argiarekin.

Ahaleginak egin behar ditut moralaren beheraldiek jipoi ez nazaten. Inora ere ez daraman leihoa hersten duten burdinazko barrote gurutzatuak. Poto bat eta jasotzerakoan hutsik uzten duen lekua betetzen duen beste potoa. Gela deitzen dioten kaxoi honen horma akoltxatuak. Bi hitzetan kabitzen den inbentarioen inbentarioak egun oso bat beteko lukeen deskripzioa eska dezake leihatilako barrote gurutzatuak lau zatitan partitzen duen argi haria zein koloretakoa den, nondik ez datorren, zergatik mugitzen den espresatzeko. Derrigorrezko momentu horietan izan ezik, ez dut gehiago zazpinaka kontatuko. Hori ez da denborari itxaroteko manera noble bat. Horretarako berdin litzateke errezatzea.

Berdin eta ohiturarekin adosago.

Hori da. Momentu bat. Hitz bat edo hasperen bat. Hitz bat edo murmurio bat, murmurio bat, edo segundo bat irauten duen karizia egun oso bat izan daitezke: zeruaren kolorea, oraindik misteriotsuki laino artean gordetzen duen egunsentia, grisa hautsiz koloratzen den goiza, urdinez betetzen den eguerdia eta urdinez finkatzen den arratsaldea. Urdinez kontsumatzen den ilunabarra. Izarretatik jaurtikitzen den gaua deskribatzen jarritz gero. Zazpinaka kontatzea kredoa errezatzea bezala litzateke, baina burua gehiago ejerzitatuz agian. Itxaroteko bi

prozedura eta zazpinaka kontatzea ez da errazenetakoa, batez ere inor zazpiehunera iristen denean. Bai.

Zer da gehiago, hitz bat ala murmurio bat.

Batzuetan ez dut pentsatzeko gairik eta besteetan berriz soberan izan ohi ditut. Hemen, sistematizazioa, dagoenean ez dagoenerako gordetzea litzateke. Sistematizatuz: pentsatzeko gairik ez badut zazpinaka kontatu itxaron beharrean zer pentsa dezakedan pentsatuko dut. Eta lehendabizi eta lehenbailehen neure eginkizunen programa. Hamazazpi aldiz utzi dut gerorako.

Hasi aurretik ere bistan da historia batzuk aspergarriak direla. Hori ere bai.

Esate baterako Margak petril ondotik aldenduz eta barre murriz «E, ze ari haiz» esaten duenean. Ez dakit egiazko historia bat kontsidera daitekeen. Eta jadanik ez nau eszitatzen gainera.

Txalupan dago nire aurrean, erronbo zuriak dituen igeritako berde batekin. Eguzkiak aurpegian jotzen nau eta aurrean arraunen tibortak balantzatzen zaizkit olatuen kadentzia geldoaren erritmoan. Nerbioso nago, egiten ditudan jestu guztiek adierazten dutenez. Edo nerbioso azaldu nahi dut kuidado handiz aukeratzen ditudan jestu-serie baten bitartez. Nolanahi, edo hala ere, ez dut situazioa dominatzen.

Arraunen tibortak –olatuene kadentzia geldoarekin gora eta behera– begizatzen ditut bakarrik, eta ez naiz atrebitzen beren

planotik aldenduz begiak harengana hurbiltzen. Berak berriz, nolabait bere gustukoa naizela adierazi nahiko luke. Irribarre eginez, esate baterako.

Baina horrelakoetan emakumeek ez dute irribarrerik egiten. Serioski begiratzen dutela esanen nuke. Seriotasun komiko batekin beharbada, baina seriuski begiratu. Edo agian ez dute begiratzen, begiak jaitsiz begirada apartatu baizik: berak nire asmoak adibinatuz bezala begiak jaitsi egiten ditu. Bista jaisten du. Bista jaisten du baina eskuartean korapilatzen duen pulteran galdu aurretik, interpretatzen ausartzen ez naizen zerbait adierazi du.

Begiak jasotzen atrebitzen naizenean, agian tibortek nire bista aurrean abandonatzen ez duten dantza kadentziatsuagatik, edo ur azalari gora darion baporeak eraginda –itsasoa irakiten dagoela esanen litzateke– oso urrutitik bezala begiztatzen diot ademan bigun batean buru atzera jasotzen duen beso doblatua.

Bero handiegia egiten du eta zuriaren zuriz eguzkia ez da ia zeruan ikusten. «Ikusi nahi al dizkidazu», esaten dit Margak esku batekin igeritakoaren tirantea besagainean bilatzen duelarik.

Zuriak, gainontzeko azalaren morenotasun mardul eta sanoarekin kontrastean, bigun ez, baina samurtasun morbido batekin irekitzen dira. Ez. Harritu edo agian izutu egin ahal bialuten ikara arin eta graziatsu batek harrotzen dituela.

Besoak eta zangoak astinduz, ahotik, sudurretik, belarrietatik txorro baporizatu bat zaratatsu botaz, ur gainean azaltzen da katxalote baten modura eboluzionatuz. Abel.

Hala ere ez zen nolana hiko tipoa Abel. Haren historiek hamar urtetako esperoa eskatuko liokete kronistari hoberenari ere, xehetasun guztiz kontatu ahal izateko.

Eta hamar urte ez da asko. Segundo bat bi mila urte izan daitezke noiz arte ez dakielarik itxaroten dagoenarentzat. «Itxarotea bada zerbait, zer itxaroten hagoen baldin badakik», esan zuen behin Samuelek, baina mutuak ez zuen deus ere erantzun eta negar egin izan balu bezala beti malkoz hezeak ageri zituen begi haiekin estazioan zegoen trenerantz begiratu zuen.

Gizon gehienek bazkariaren saskiarekin salto egiten zuten trenetik. Baina ez dakit zenbat izan ohi ziren. Orduan, oraindik, ez nuen kontatzeko ohiturarik eta arrazoi berdinatik ez dakit zenbat itxaroten nuen. Trena hartzen zuten emakumeak eta uzten zuten gizonak –saskidun eta gabeak bereiziz– konta nitzakeen. Edo buzodunak eta gabeak, esate baterako, eskuetan arratsaldeko egunkaria zeramatenak bereiziz. Hainbeste gauza.

Baina beharbada orduan ikasi nuen itxaroten bizikletaren barra gainean txindurritu egiten zitzaizkidan zangoak igurtziz, noizbehinkako hitzez osatzen ziren konbertsazioak noiz bukatuko zain nengoela.

Zain egotea ez da itxaroten egotea bezala. Esate baterako, ezin daiteke luzaroan zain egon. Itxaroten, berriz, posible da

bizitza osoa pasatzea. Zain ez da desesperantzarekin konjugatzen eta behar bezala itxaroteko, berriz, derrigorrezkoa da desesperantzaren krueldadea sufritzen ikastea. Hor daude, itxaroten baino areago zain.

Ihar eta luze. Normalean hezurren horitasuna ohi duten azkazalek ere zuritasun distiratsu bat erreflejatzen dutelarik. Emozionantea da abentura hau.

Esperoaren jabe, errege, enperadore sentitzen naiz.

Burua altxatuz oso gertutik ikusten ditut neure zangoen estremoetan, beti luzeegiak izan diren ile beltz bakanak hezurren alde bietara orraztuak. Esperoan. Nik mugimendu bat noiz ordenatuko zain, edo mugimendu oro egiteko posibilitatea galdurik. Ikusiko dugu.

Emozionantea da destinoari aurrea hartzeko libere marjina aprobetxatzea.

Goitik behera. Behetik gora. Goitik behera mugitzeko esanen diet, eta hezur ankilosatu batek hots deskoloka bat egingen du beharbada. So legokeen entzule batek bakarrik jaso lezakeen klik arin eta lehor bat.

Edo, beharbada, nire ordenua obeditu ezinik behatz paralizatu batzuk izanen dira, oin paralizatu batzuen estremoetan.

Gora. Goitik behera. Behetik gora. Behera.

Behera. Behetik gora. Goitik behera. Gora. Mekanismoak funtzionatu egiten du. Oraindik ez da ordua. Karilloiak ez du oraindik ordurik seinalatu, eta denbora ez da oraindik amaitu.